

CIDEN EZPATA MARTZILLAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Valentzia, 1094. Rodrigo Díaz de Vivar *Cid*-ek hiria hartu zuen eta zeregin horretan Tizona izeneko espata kendu zion Marokoko Bucar erregeari. Horixe dio behintzat *Mío Cid*-en eresiak. Cidek haren suhiei, Carrióngo infanteei oparitu zion arma, gero berreskuratzeke eta, azkenik, Pedro Bermúdez ilobari eman omen zion. Hor galdu zen espataren arrastoa.

Mende batzuk geroago ustezko Tizona Errege-Erregina Katolikoen esku zegoen. Pierres Peralta Ezpeleta kondestable agaramontarrak (1421-1492) errege-erreginen ezkontzaren aldeko negoziazioetan lan handia egin zuen eta, horregatik, Fernando Katolikoak espata hura, *lo soi Tisona* hitzak grabatuta dauzkana, eman zion opari. Espataren jabe berria, Leringo I. kondea, Martzillako baroia eta Faltzesko lehen markesa izango zenaren aitona zen eta, hala, espata mitikoa Martzillako gazteluan gorde zuten. Hantxe egon zen XX. mendera arte, Espainiako Gerra Zibila arte, zehazki.

Kolpistentzat Espainiaren iragan loriatuaren sinboloa zen Tizona eta, horregatik, Nafarroatik atera eta Madrilgo Ejertzitoaren Museora eraman zuten frankistek. 1975ean Franco hil ondoren, espata Faltzesko markesari –Peralta oinordekoari– itzuli zioten eta hura Espainiako Kultura Ministerioari



Ustezko Tizona, Rodrigo Díaz de Vivar Ciden espata, mende luzez Martzillako gazteluan gordeta egon zena. Benetako Tizona dela dioen frogarik ez badago ere, Gaztela-Leóngo Juntak, 1,6 milioi ordaindu zizkion Faltzesko markesari espataren truke.

saltzen ahalegindu zen. Baina ministerioak pieza erosteari uko egin zion, Rodrigo Díaz de Vivarren benetako espata zela baieztatuko zuen frogarik ez zegoela argudiatuz.

78,5 zentimetro luze eta 4,5 zentimetro zabal den espata xehe aztertu dute adituek, eta orria kalitate onekoa eta Ciden garaikoa dela diote (egun duen espata-burua berriagoa da, XV. mendean

ipini zioten). Beraz, mendetan Martzillako gazteluan egondako espata benetako Tizona izan daitekeela diote, baina horren behin betiko frogarik ez da sekula aurkitu. Gainera, beste Tizona batzuk ere azaldu edo aipatu izan dira hainbat dokumentutan.

Eta, hala ere, Gaztela-Leóngo Juntak 2003. urtean 1,6 milioi euroren truke erosi zion espata markesari. ■



Domingotarrei esaten zieten jakobino

XIII. mendean domingotarrek komentu bat fundatu zuten Parisko Saint Jacques elizaren alboan, izen bereko kalean. Ordena erlijiosoak hirian zuen lehen egoitza zen eta, hala, pixkanaka, fraile domingotarrei jakobino esaten hasi ziren.

1789ko urrian, Frantziako Iraultzaren ordezkari muturrekoenak domingotarren beste komentu bat, Saint Honoré

kalekoa (irudian), hasi ziren erabiltzen bilgune gisa. Egoitza 1794ko uztailean itxiarazi zuten; beraz, bost urtez ere ez zuen iraun. Baina tarte hura nahikoa izan zen talde politikoari jakobino ezizena jartzeko eta haiek, azkenean, izena ofizialki hartzeko. Egun, jakobinismoa jarrera politiko erradikalaren sinonimoa da. ■